MIATUZ

# Cordón y capucha

Martín GARITANO

La detención de quince presuntos militantes del GRAPO, en el Estado, y la renovada pretensión del consejero Atutxa para modificar —endurecer— las leyes en beneficio de la acción policial destacaban ayer en un panorama periodístico presidido por el enigmático paradero de Publio Cordón.

Atutxa se mostró partidario de modificar el código penal y prepara para ello un informe que sus diputados trasladarán al Congreso. Para el editorialista de "El Mundo" «en democracia no puede anteponerse la eficacia al respeto escrupuloso de las garantías individuales» y matizaba ayer que «bien hará Atutxa en actuar con cautela. En su primera formulación parece confundir el todo con la parte: habrá de ser identificado y habrán de exigirse responsabilidades a los delincuentes, encapuchados o no, porque llevar capucha no significa en todo caso ser un delincuente».

Con menos contemplaciones abordaba el tema el inexpugnable "ABC", para dejar sentado que «hasta hoy mismo ese género cruzado entre el esperpento y la complicidad con el asesinato que se denomina "encapuchados" campa a sus anchas por el magro espacio del código penal español».

Seguramente por eso calificaban de «perfecto» el plan ideado por Atutxa y loaban al personaje con perlas como la que sigue: «Atutxa, otra vez, da en la diana de la impunidad pro etarra. Claro que el futuro código penal debe recoger algo más que cierta responsabilidad de estos mafiosos travestidos de Fantomas que incendian autobuses, cabinas telefónicas y todo lo que se les ponga por delante, ciudadanos incluidos. Y que el hecho de ser detenido en una de sus acciones de guerrilla urbana con la capucha puesta agrave la pena».

*El golpe policial ha resultado tan espectacular como el misterio que rodea a Publio Cordón*

Y respecto a los GRAPO, la operación policial y el paradero de Publio Cordón, basta con asomarse a los titulares para comprobar el desconcierto en que ha quedado sumida la clase periodística tras la redada del viernes.

**"El País"** abría edición constatando que «la policía, sin pistas de Cordón tras detener a 15 presuntos grapos». Los de **"Diario 16"** adelantaban que «La Policía cree que Cordón se encuentra en libertad» y **"El Diario Vasco"** explicaba que «El golpe a los Grapo no aclara el enigma sobre Publio Cordón». En su "pulso del día" el rotativo de Ibaeta señalaba, además, que «es encomiable que, tras innumerables errores policiales y alguna fuga de prisión, se haya conseguido este relativo éxito pero resulta lamentable que no se haya liberado al industrial Publio Cordón ni se haya llegado al fondo de la estructura de la organización».

Y, a modo de resumen, vale la portada del **"ABC"**: «Tras la brillante operación policial que descabezó al Grapo, crece el misterio en torno al paradero de Cordón». También resumía el espíritu de la jornada la portada de **"El Correo Español"** con el titular: «La Policía asesta un golpe a los GRAPO pero no localiza a Cordón».

Respecto a los dos periódicos editados en Nafarroa, **"Diario de Noticias"** prácticamente repetía titular con **"El Correo"**: «La Policía asesta un duro golpe a los GRAPO, pero no encuentra a Cordón» y, dentro ya del periódico, insistía en el *pero*: «...pero no esclarece el paradero de Cordón». **"Diario de Navarra"**, a su vez, titulaba con «Quince "grapos" detenidos en una operación para liberar a Cordón», y en un despiece aclaraba: «Cordón sigue secuestrado». Sin embargo, para su pariente territorial **"Diario de Navarra"** «La Policía cree que Publio Cordón abandonó España tras ser liberado»... Lo dicho, desconcierto.

NERE TXANDA

# Patu hitsa

Txillardegi / Hizkuntzalari eta idazlea



Patu hitsa, bai. Gurea. Ez haiena.

Berek ez baitakite, egiten eta eragiten dutena bidezkoa denetz ere. Berdin baitzaie zilegitasuna. Berek, egurgile izan ez arren, jai-ta-aste ematen baitute egurra, batera eta bestera; eta laudorioak besterik ez hartzen.

Berek bai patu ona.

Berek, aberaspidea ahitu zaienean, urteetan barrena sos-iturri egon zirenak funditzeko eta eraisteko lotsarik batere ez dute: ondasun-gune izandakoak errotik soildu, eta kitto.

Eta berek, «Liberazio Talde Armatuak» antolatzeko edo zuzenesteko eragozpenik izan ez duten horiexek (gure «demokratak» ditugu gogoan, jakina), pozarren ikusi ditugu egun hauetan. Ikaraz, dirudunen saldukeriaz, hemendik edo handik herri txiki bati bere buruaz jabetzeko eskubidea ukatu zaion unean, berak pozez ezin sosegaturik harrapatu ditugu.

Eskubide-sakratu baten ezin-gauzatzea lortu dute berriro. Beste askotan, lardaska ibili beharrik ez dute izaten. *«No»*, eta kitto. Agure-asioetara azaldu gabe, eta aza-jan-beharra aipatu ere gabe, azpiratuei egurra eman, eta aski.

Berei agintea dagokie, garaitzea, *«res-publika»* administratzea; lapurtzea euskara batuaz.

Guri, aldiz, sofritzea dagokigu, langabezia pairatzea, kolpeak jasatea. Guri, presoak bisitatzera; eta berau ere berek egoki deritzotenean bakarrik. Guri, «faxista» hutsak omen garenoi, gartzeletan eta deserrian zahartzea eta hiltzea dagokigu.

Itxaron egin behar guk («lasai», kantak dioen bezala); itxaron egin behar guk, frakasatuok. Guk, gehienez, denok hil ondoren, beste munduan ezagutuko omen dugu geure eskubide zapalduen loraldia.

Agian bai! Zeren, han ere, guri, arnegarioi, ordenua errespetatu ez dugunoi, infernuan betiko kiskali beharra tokatuko baitzaigu.

Artean berak, betikoak, mezatara igandero joaten zirenak, gure «ohitura garbiyak» bermatzeko diru publikoaz putetara joaten zirenak, Jainkoaren eskuinean topatuko baititugu; irribarrez. Berriro ere han irabazle eta jaundurik.

HEMEROTEKA

## Egunkaria

### "Hitzetik Hortzera" (Ohar nekrologikoa)

*Joxerra Garzia*

"Hitzetik Hortzera" telebistako bertsoprograma orain urtebete hil zen, sei urte doi zituela, lurretako aitasantuaren madarikazioa hartu ondoren. Goian bego.

Ohar nekrologikoaren hoztasunaren azpian, ordea, badu kasu honek sutan jartzeko moduko alderdirik. Alderdi bat, batez ere.

Adituak ez dator bat heriotza eragin zuen gaitza aipatzerakoan. Hildakoaren senitartekoek (hainbat eta hainbat alargun kontsolagaitz, errurik gabeko milaka umezurtz aita-ama ponteko eta gainerakoek) ez dute inola ere forentsearen diagnostikoa ontzat hartzen, presio aitorrezinen ondorio delakoan.

Forentseari sinistera, berezko heriotza izan zuen hildakoak: bereonenak emanda, zaharraren zaharrez higaturik ohean gozo-gozo utziko zion, bertsio ofizialaren arabera beti ere, bizitzeari. Azken aldiko audientziaren taupadak ere ohikoak baino apalago omen ziren. Aldez aurretik iragarririko heriotza, beraz, guztiz naturala, ezein susmo txarrerako biderik eman beharko ez lukeena.

Aitzitik, akusazio partikularrak hildakoak bere azken uneetan jasaniko tratu txarrak salatzen ditu, zenbaitetan torturaraino iritsi omen zirenak. 1993ko uztailekoa da lehen salaketa. Izkutuan burutu bide ziren, jakina, zigorrok, salbu eta 1994ko apirilaren 21eko gauekoa. Orduko hura, anestesiarik gabeko ebakuntza, jendearen begibistan egin zen, kirofanorik dotorenetik zuzenean transmititu zelarik.

Ebakuntzatik heriotzara bitarteko hilabeteetan etengabekoak izan omen ziren erasoak. Apirileko gau hartan gertatutakoaren erantzunkizun-erruaren aitorpena hildakoari sinarazi nahi zaio kosta ahala kosta. Aieteko gailurretik ez urruti dagoen Miramon deritzon egoitzan, bigarren solairuko gela batean jakinarazten zaio, forentsearen bertsioa baietsi ezean hiltzera kondenatua dagoela, askorik merezi gabe bizibidea eskaintzen zioten agintariekiko bere leialtasunik ezaren zigor-ordainez. Normala denez, prozedura horietan guztietan ez zen dokumentu idatzirik erabiltzen, edota erabiltzen zirenak berehala desegiten ziren, eta egoera horretatik edo antzekoetatik pasa direnen testigantza beste frogarik ez dago.

Akusazio partikularrak dioenez, hildakoa alferrik saiatu omen zen ordurarteko bere lanaren defentsan. Heriotz kondena sumarisimoa irakurri zion mandoaren goragoko beste mandoren batekin hitz egiteko ahaleginak ere alferrikakoak izan ziren guztiak.

"Hitzetik Hortzera"-ren heriotzaren lehen urteurrena bete den honetan, haren alargun, umezurtz eta lagun kontsolagaitzek ez dute mendekurik eskatzen, are gutxiago otoitz-errezurik. Jauntxokeriaren gaitzetik eta haren ondorio den menpekokeriaren bekaturik begira zaitezela baizik ez dizuete eskatzen, arren eta arren, harrizko herri honetan hilarriak herria hilerri bihurtzeraino ugal ez daitezen, denok espero dugun duintasunezko herrigintzaren zerua noizpait lortuko dugun esperantzan. Amen.




El Roto en "Diario 16", 4-11-95.

## Deia

### Diagnóstico social

*Gorka Zabala*

(...) Alguien que profesa la fe en los diagnósticos («un problema definido es un problema prácticamente resuelto») no puede caer en la indolencia o en el protocolo de las ideas. Por eso el suyo —José Angel Sánchez Asiaín, presidente de la Fundación BBV— fue el diagnóstico de un médico sincero: nuestra competitividad está mal, estará peor pero tiene arreglo. Y con la autoridad moral de la experiencia y la terquedad de las cifras dibujó un sombrío panorama sin rehuir el frío de la situación pero anunciando prevenciones ante la helada. Con confianza, con un nuevo modelo, con trabajo, todo puede quedar en un baño de rocío que permita restablecerse de la tiritona.

¿Qué nos pasa? Sánchez Asiaín apeló a Ortega y Gasset para responder «Lo que nos pasa es que no sabemos lo que pasa».